# ZORION AGURRAK




Anitz urtez, **Eider!!** Orain dela 7 urte gure etxea alaitasunez bete zenuen. Ordutik, familia guzia elkartu gara zure urtebetetzea ospatzeko. Segi zaren bezain alai, aktiboa eta goxoa izaten. Guk zurekin disfrutatzen segituko dugu. **Axular, ama eta aita.**



Zenbat egun falta da?
Artega diñozu
Prestatu belarriak,
Kolko bete mosu
Bederatzigarrena
heldu jaku, aizu!
Ospatu beharko dogu
danok jo eta su
Zorionak, **Iradi**
Itzela zara zu!

**Zorion agurrak** argitaratu ahal izateko, gogoan izan mezuak astearte arratsaldea baino lehen jaso behar ditugula. Asteartetik aurrera jasotzen diren mezu guztiak hurrengo asteko zenbakian argitaratuko ditugu.



# Bizipoza

Bizipoza elkarteak, aurten ere, *Mundu berri bat guztiontzat* egitasmoari helduko dio, eta euskal sortzaileek eta elkarteek elkarlanean sortutako 10 kantu eta bideoklip egingo ditu. Horretarako, grabaketak martxan dituzte dagoeneko, Elkarren Donostiako estudioan. Etiopia Utopia elkartea, Ane Labaka Maioz bertsolaria eta kantaren hitzen egilea, eta abestiari ahotsa jarriko dion Demode Quartet taldea dira argazkikoak. CD-DVDa urtarrilean kaleratuko dute!



Kaixo, irratizaleok:
Datorren urriaren 5etik aurrera **Orioko Zaragueta irratia** martxan jarriko dugu. Aurtengo ikasturtean tailerretan landuko dugu, eta, asti gehiagorekin, maiztasun handiagoa izango dute irratsaioek. Herriko albisteak, elkarrizketak, menua, urtebetetzeak, erreportajeak eta beste hainbat gauza izango dira entzungai. Beraz, 11:40an entzungo dugu, eta gerora blogean entzungai egongo da. Lehenengo irratsaioan LH5ko taldeko ikasleak izango dira esatari. Entzun Zaragueta irratia!!!

● **Bidali zure gutunak helbide hauetara** ● **Helbide elektronikoa:** mantangorri@berria.eus **Egoitza nagusia:** BERRIA. MANTANGORRI. Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain.

**Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM **Lege Gordailua:** SS-616/05 **Zuzendaria:** Martxelo Otamendi **Koordinatzailea:** Ane Insausti Barandiaran
**Egoitza:** Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien etorbidea, z/g. 20140 Andoain **ISSN:** 1699-728x